



# ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN ARGAZKI LEHIAKETA ONDAREA KLIK BATEAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren, Igerrak (Euskal Instagram Komunitatea) eta Ondare lagunak taldearen eskutik, Instagram eta Facebook bidezko argazki lehiaketa aurkezten dugu.

Ondarearen Europako Jardunaldiak urriaren 1etik 31ra bitartean ospatuko dira. Honen inguruan ekitaldi pila egingo dira Bizkaiko ondarea plazara eramateko. Testuinguru honetan, hurrengo argazki lehiaketa antolatu dugu:

## ONARRIAK

### Argazki mota

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuek sortu dituzten ondasun materialak eta inmaterialak, argazkien bidez erakutsi dezazuela nahi dugu.

### Nola parte hartu?

Facebook edota Instagramera argazkiak igo behar dira hurrengo traolak erabilita:

- #OndareaBizkaia20
- #Igerrak\_OndareaBizkaia20

## **Nork hartu dezake parte?**

- 18 urte edo gehiagoko herritarrek, baldin eta ez badira IGERRAK, ONDARE LAGUNAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO langile edota ahaide hurbilak.
- Jardunaldietako ekintzetan parte hartu eta argazkiak egiten dituen edonor.
- Bizkaiko “Kontaiguzu Ondarea” islatzen duten edozein argazki, nahiz eta jardunaldietan parte hartu ez.

## **Epea**

Urriaren 1etik Azaroko 15arte. Biak barne.

## **Sariak**

Laster egongo dira eskuragarri.

## **Epai mahaia**

Epai mahai bat ezarriko da. Honen barnean: igerraken arduradunak, Ondarea Bizkaia, eta Ondare Lagunak parte hartuko dute.

## **Baldintzak**

- Instagram edo Facebook sare sozialeetan norberaren profilaren bidez parte hartu.
- #OndareaBizkaia20 eta #Igerrak\_OndareaBizkaia20 traolak erabiltzea argazki oinean.
- Argazki berriak zein zaharrak izan daitezke, beti ere zaharretan iruzkin bidez argazkiaren deskribapena eta traolak agertu badira.
- Instagram-en @OndareaBizkaia, @OndareLagunak eta @Igerrak erabiltzaileak jarraitzeta gonbidatzen zaituegu.